

# Badatoz auzoko jaiak

Hilaren 11n, osteguna, Martuteneko jaiak hasiko dira. Jai Batzordeak egitarau txukuna antolatu du. Hilaren 14ra arte, giro aparta izango da Martutenen.

Ostegunean, 19.30etan hasiko dira jaiak. Buruhandi eta txistulariek emango dute kalera irtetzeko deia. Aurten Jai Batzordea inoiz baino indartsuago ibili da eta Jai Batzordeko kide Elbirek esan digunez, atzera geratu dira aurreko urteetan antolatze lanetan sortutako ara-

zoak. "Iaz festak kolokan egon ziren antolatze lanetan ari zeko jenderik ez zegoelako. Zorionez, iazko deiaren ondoren Jai Batzordea indartu egin da. Ez gara talde handia baina nahiko ondo konpondu gara", jakinarazi digu Elbirek.

Ohi bezala, feriak gasolin-degi ondoko lautadan ipiniko dira. Txosnak, berriz, auzoko parkean. Parkean egingo dira, gainera, jaiotako ekitaldi garantzitsuenak.


## Bertako produktuen feria

Jaiotako osagarri nagusienak, zalantzarik gabe, sagardo dastaketa eta bertako produktuen feria dira. Aurten ere, ez dira faltako ez sagardogileak ezta Martutene inguruko ba-serritarren produktuak ere. Feria eta sagardo dastaketa larunbatean egingo dira, Pi-larika egunean, hain zuzen. Hainbat sagardotegik parte hartuko dute bertan: Barkaiz-tegi, Gartziategi, Lizeaga, Pe-tritegi, Astarbe, Rezola, Otsua Enea, Bereziartua eta Egiluze.

## Aurten haurren bazkaria egingo da

Baserriei dagokienez, berriz, Antxume, Olatxo, Okendotegi, Agirretxe eta Aldaba Zarra baserrietako produktuak erosteko aukera izango da, tartean Aldaba Zarrako gazta gozoak.

Bestalde, egitarauak bi berrikuntza iragarri ditu. Batetik, larunbatean, haur bazkaria egingo da. Bestetik, igandean, ohiko herri kirolen aurretik, erakustaldi bitxia izango da, izan ere, hainbat aizkolarik egurrezko irudiak egingo dituzte. Antolatzaileen arabera, merezi du erakustal-



Bertako produktuen feria arrakastatsua izan ohi da.

## CHARTER MARTUTENE

**SUPERMERTATUA**

Ibaialde 1 • Tel: (943) 46 61 64

## **ALKUBI**

Martutene pasealekua 73, behea  
Tel.: (943) 46.32.10  
**20014 DONOSTIA**

### AUTOAREN BOUTIKA

Salmenta eta Muntaiak: Pertsonalizazioa

<ul style="list-style-type: none"> <li>• ALARMAK</li> <li>• AUTO-IRRATIAK</li> <li>• HI-FI EKIPOAK</li> <li>• TELEFONO MUGIKORRAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• MOTELGAILUAK, MALGUKIAK</li> <li>• HAGUNAK, ESERLEKUAK</li> <li>• BATERIAK, HAIZETAKO GARBIGAILUAK</li> <li>• DEKORAZIOA, ...</li> </ul>
--	---

**Betiko kalitate eta profesionaltasunarekin**

Sagardo botilak salgai urte osoan

## **BARKAIZTEGI**

### TOLARE-SAGARDOTEGIA

Barkaiztegi Pasealekua • MARTUTENE • TEL.: (943) 451304 ETA (943) 455501

## **ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA**

ASTIGARRAGA - ERGOBIA - LOIOLA ETA MARTUTENE

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

*Jaietan ere zuekin. Ondo pasa!*

## Martutene

### Koadrilak tabernaz taberna

Ostiralean, hilak 12, auzoko koadrilak pote-  
oa egingo dute auzoko tabernetan.  
Koadrilan joan-etorriak alaitzeko danborjole  
talde bat ariko da. Larunbatean, bestalde,  
herri afaria egingo da Trinkete tabernan.  
Koadrilakako kideek mozorrotuta joan behar  
dute. Sari banaketan, Elektrotuna taldeko  
kideak ariko dira.



### Argazki onena nork egingo

Azken urteetan bezala,  
Martuteneko Gaztekuak  
jalei buruzko argazki lehia-  
keta antolatu du 14 eta 18  
urte bitarteko gaztekoen-  
tzat. Argazki rallya dela eta  
jaietan hainbat argazkizale  
ibiliko dira Martuteneko  
kaleetan barrena, argazki  
onena nork egingo.  
Bestalde, hilaren 13an,  
Gaztekuaren ekimenez,  
grafiti lehiaketa egingo da.



### Jan eta jan

Ostiralean, hilak 12, 14.00etan  
Makillao txapelketa egingo da  
Martuteneko parkean. Ohi bezala,  
hainbat aditu  
izango dira epai-  
maharian.  
Txapelketa amai-  
tu eta gero,  
makillaoa dasta-  
izeko aukera  
izango da.  
Igandean, berriz  
sardina jana  
(20.00etan)  
egingo da.



### Zaldi gainean paseoa

Hilaren 13an, larunbata, Gorriti ganadu haziea etorri-  
ko da auzora bere pottoka eta zaldiekin. Beraz, hau-  
rrek zaldian ibiltzeko aukera izango dute. 11-30etan  
ipini da hitzordua. Martuteneko plazan. Larunbata  
Haurren  
Eguna  
izango da.  
Beraz,  
haurrei-  
zuzenduta-  
ko beste  
hainbat  
ekitaldi  
izango  
dira.



**MARTUTENEO BH INSTITUTUA**

**HEZIKETA JARRAIA,  
LANGILEENTZAT IKASTAROAK**

#### FABRIKAZIO MEKANIKOKO ARLOA

Ikastaroaren izena	Orduak	Datak	Ikastaroaren izena	Orduak	Datak
1.-ZK Fresagailuan Programazioa	50	01/11/05-27	7.-Harizko elktro-higadura	40	02/04/08-25
2.-Sarpenezko elektrohigadura	40	02/03/4-21	8.-CAD.Unigraphics. Aurreratua	45	01/11/05-23
3.-ZK Tornuan programazioa	40	01/12/03-21	9.-CAM Unigraphics	45	02/01/07-25
4.-ZK Fresagailuan lanketa eta prog.	55	02/01/07-31	10.-Moldeen diseinua MOLD Wizard	45	02/03/04-22
5.-CAD. Unigraphics sarrera	40	01/09/17-05	11.-Soldadura semiakustikoa	45	02/05/06-24
6.-Soldadura elektrikoa	45	01/10/08-26	12.-ZK tornuen programazioa eta egik.	40	02/02/18-07

Tel.: 943453655-943453711  
Faxa: 943470636  
e mail: martutenekobhi@jet.es



EUROPAR  
GIZARTE  
FONDOA



**HOBETUZ**

**Martutene**

**Egitaraua**

**Osteguna 11**

16.30 Argazki rallya  
19.30 Jaien hasiera buruhandi eta txistulariekin  
23.30 Dantzaldia Akelarre taldearekin

**Ostirala 12**

09.00 Diana txistulari eta dulzainarekin  
10.00 X. Herri Krosa  
11.00 Haur parkea  
12.00 Hildako auzotarren ome-nezko meza  
12.30 Sagardo dastaketa eta nekazal feria  
14.00 Makailao txapelketa  
16.30 Mus eta toka txapelketak  
17.30 Graffiti lehiaketa  
19.00 Aupa Navarra taldearen jotak  
20.30 Koadrilen arteko poteoa  
22.00 Zezensuzkoa  
21.00 Etzakit taldearen emanaldia

**Larunbata 13  
Haurren Eguna**

10.00 Txokolate jana  
10.00 Burusoil onena aukeratzeko txapelketa  
12.00 Pintxo jana Zahar Etxean  
16.30 Euskal dantzak  
18.00 Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoaren emanaldia  
19.30 Buruhandiak eta txistulariak  
21.30 Herri afaria eta mozorro lehiaketa  
23.30 Avenida orkestraren emanaldia

**Igandea 14**

09.00 Diana txistulariekin  
11.00 Haur parkea  
12.00 Herri kirolak  
16.00 Pilota eta areto futbol txapelketak  
18.00 Areto futbol txapelketako finala  
19.30 Buruhandiak  
20.00 Sardina jatea  
22.00 Jaien amaiera



**LIZEAGA**

Tolare Sagardotegia  
Edan eta eman edatera!!

Gartziategi baserria  
**ASTIGARRAGA**  
Tel.: (943) 468290




**TXOFRE**  
SUMINISTROS INDUSTRIALES, S.A.L.

- **Berezitasuna:** torlojugintza herdoilezina
- **Tresneria**
- **Banatazaileak:** Gayner Hitachi Super Ego

Billegia eta bulegoak:  
Ubarburu pasealekua 9 - 27. poligonoa  
Tel.: (943) 466394 eta (943) 462374  
Faxa: (943) 464521  
20014 DONOSTIA

Martutene auzoa 71  
**20014 DONOSTIA**  
Tel.: (943) 45 19 97



**MARCOS**



**Okindegia eta etxeko gozoak**

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea  
- Tel.: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA